

BALOREZKO PROPOSAMENA

- **Ze behar edo arazo konpontzen duzue?**

Helduen beharrak, beraien jakinduria sakontzea, gizarteak gai guztien inguruko informazio antzekoa izatea.

- **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

Akademia honetan oso giro ona egongo da, bezeroak eta langileen arteko harremana oso ona izango da eta horregatik egunero zerbait berria ikasita joango dira etxera. Gainera, ikasteaz edo aditzeaz gain, solasaldiak egongo dira, mota guztietakoak (bidaiak, hilabetearen amaieran jolas desberdinak...). Beste alde batetik ohituta gaude hizkuntza akademietan adin konkretu batetik beherako pertsonak ikustera, eta askotan ez diegu nagusien beharrei erreparatzen. Horregatik gure inguruetan aurkitzen ez den helduen akademia bat sortuko dugu.